# BIZKAIA ZUBIA
# PUENTE BIZKAIA

# GETXO

BILBOTIK 12KM
A 12KM DE BILBAO





130 Aniversario
Innovando la tradición
y uniendo personas
1893-2023

PUENTE BIZKAIA

UNESCO
Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura

Vizcaya Bridge
inscrito en la Lista del Patrimonio Mundial en 2006

getxo
www.getxo.eus/info

EUSKARA
CASTELLANO
2023

## Gizadiaren Ondarea (UNESCO)

Burdinazko erraldoi hau Industri Aroaren elementurik nabarmenena eta Euskadiko ikurrik ezagunenetako bat da. 2006. urtean Gizadiaren Ondarea izendatua, munduko zubi transbordadorerik zaharrena da eta Bizkaiaren historiarik berrienaren zuzeneko lekukoa. UNESCOren ustez, "sormen-adierazpen aparta da, funtzionaltasuna eta edertasuna ederki uztartzen dituena".

## Zubiaren historia

Bizkaia Zubia ibilgailu transbordadorea duen munduko lehen zubi esekia da, eta haren funtzio nagusia Nerbioiko itsasadarraren bi aldeak lotzea da Portugalete eta Getxo (Areeta); makineria Getxon dago.





Deigarria egiten da berehala, burdinazko eraikuntza delako eta Eiffel Dorrearen antza duelako. Alberto de Palacio arkitektoak eta Ferdinand Arnodin injineru-eraikitzaileak elkarrekin egindako diseinu bati dagokio.

Lanak 1890eko abuztuaren 4an hasi ziren, eta 3 urte geroago inauguratu ziren, 1893ko uztailaren 28an, ekaitz gogor baten erdian. Eraikuntza zail horretarako hauexek behar izan ziren: 21.041 torloju, 88.248 kg. altzairuzko kable, 10.629 errematxe eta 728.447 kg. burdin ijezketa. Zubiaren guztizko kostua 808.911,60 pezetakoa izan zen.

## Zubia gaur egun

Zubi esekia izenaz ezaguna, Monumentu Historiko Artistikoaren kalifikazioa eman zitzaion (2002) eta Industri Aroko eraikuntzan nabarmenena dela ezarri da.

63 metroko altuera eta 160 metro luze izanda, urteko 365 egunetako 24 orduetan funtziona -tzen du bidaiarien eta ibilgailuen transbordadore zerbitzu erregular legez, eta egunean 16.300 oinezkori eta 1.200 ibilgailuri ematen die zerbitzua batezbeste.

## Patrimonio de la humanidad (UNESCO)

Este coloso de hierro es el más destacado representante de la Era Industrial y uno de los iconos más reconocidos de Euskadi. Declarado Patrimonio de la Humanidad en 2006 es el Puente Transbordador más antiguo del mundo y un testigo directo de la historia más reciente de Bizkaia. Es para la UNESCO "una excepcional expresión de creatividad con la que se combinan perfectamente su funcionalidad y su belleza estética".

## Historia del puente

El Puente Bizkaia es el primer puente colgante con vehículo transbordador del mundo y su función principal es unir las dos márgenes de la ría del Nervión entre Portugalete y Getxo (Las Arenas) donde se encuentra la maquinaria.

Llama enseguida la atención por su construcción en hierro y su gran parecido con la Torre Eiffel. Corresponde a un diseño conjunto entre el arquitecto Alberto de Palacio y el ingeniero-constructor Ferdinand Arnodin.

Las obras comenzaron el 4 de agosto de 1890 y su inauguración al público tuvo lugar 3 años después, el 28 de julio de 1893 en medio de un fuerte temporal. Para su compleja construcción se necesitaron: 21.041 tornillos, 88.248 kg de cables de acero, 10.629 remaches y 728.447 kg de hierro laminado. El coste total del Puente fue de 808.911,60 pesetas.

## El puente hoy

Conocido popularmente como el Puente Colgante, está declarado Monumento Histórico Artístico (2002) y es considerado el más destacado representante de la Era Industrial.

Con sus 63 metros de altura y 160 metros de longitud funciona los 365 días del año y las 24 horas del día como servicio regular de transbordador de pasajeros y vehículos, con una media diaria de 16.300 peatones y 1.200 vehículos.





Datu bitxi moduan, 1893tik hona milioika lagunek zeharkatu dute itsasadarra zubitik, AEBetako eta Europako Batasuneko egungo biztanleriak (biak batera) adina lagun, gutxi gorabehera 650 milioi lagunek. Itsasontziak egin duen distantziarekin, 31 itzuli emango litzaizkioke lurrari.

Oinezkoentzako pasagunea 50 metroko altueran eraikita dago, bidaiariak oholtzatik ibil daitezke eta aparteko ikuspegiaz goza dezakete: Nerbioi ibaiaren bokalea, Bilboko Portua, Getxo, Portugalete eta inguruko mendiak.

Gaur egun horrelako 8 zubi baino ez daude munduan, eta Bizkaia Zubia da zaharrena. Funtzionatzen ari diren gainerako zubiak Europan eta Ameriketan daude: 3 Britainia Handian, 2 Alemanian, 1 Frantzian eta 1 Argentinan. Bizkaia Zubia Zubi Transbordadoreen Munduko Elkartearen sorreraren sustatzailea izan da.





Sari eta errekonozimenduen artean, hauexek nabarmentzen dira:

- **Gizadiaren Ondarea, UNESCOk izendatua** (2006ko uztailaren 13a). Euskadiko lehena eta estatuko industri ondare bakarra (Munduko ondare-zerrendako ondasunei buruzko informazio gehiagorako, kontsultatu helbide honetan: www.unesco.org )
- **Turismoko Lehen Euskadi Saria 2007**, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Industria Saila.
- **Archival Saria 2003**.
- **Europa Nostra Saria 2003**.
- **Atsegin Handiz Saria 2000**, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Industria Saila.

## Data garrantzitsuak

**1888ko urtarrilaren 1a** - Alberto de Palacio jaunak Bizkaia Zubia eraikitzeko proiektua erregistratu zuen Sustapen Ministerioan. Egun haietan eraikuntza prozesuan zegoen, eta hurrengo urtean inauguratu zen, 1889an hain zuzen.

**1890eko otsailaren 12a** - Herri Lanetako zuzendari nagusiak Bizkaia Zubia ibilgailu mugikorrarekin egiteko proiektua onetsi zuen eta Errege Agindua sinatu zuen.

Como dato curioso, desde 1893, han atravesado la ría por este puente el equivalente a toda la población actual de EE.UU. y la Unión Europea juntas, aproximadamente unos 650 millones de personas. La distancia recorrida por la barquilla habrá dado 31 vueltas al mundo.

La construcción de una pasarela peatonal a 50 metros de altura hace posible a los visitantes pasear por el tablero y disfrutar de unas vistas extraordinarias: la desembocadura del Nervión, el Puerto de Bilbao, los municipios de Getxo y Portugalete y los montes colindantes.

En la actualidad existen únicamente 8 puentes en todo el mundo, siendo el Puente Bizkaia el más antiguo. Los demás Puentes existentes en funcionamiento están situados en Europa y América: 3 en Gran Bretaña, 2 en Alemania, 1 en Francia y 1 en Argentina. El Puente Bizkaia ha sido promotor de la creación de la Asociación Mundial de Puentes Transbordadores.

Entre los premios y reconocimientos obtenidos destacan:

- **Patrimonio de la Humanidad declarado por la UNESCO** (13 de julio de 2006). El primero de Euskadi y único de carácter industrial del Estado (Para más información sobre bienes incluidos en la lista de patrimonio mundial consultar: www.unesco.org)
- **Premio Euskadi de Turismo 2007** Dpto. de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.
- **Premio Archival 2003**.
- **Premio Europa Nostra 2003**.
- **Premio Con mucho gusto - Atsegin Handiz 2000** Dpto. de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

## Fechas representativas

**1 Enero 1888** - Don Alberto de Palacio registra en el Ministerio de Fomento el proyecto para la construcción del Puente Bizkaia. En estas fechas la Torre Eiffel estaba en proceso de construcción y se inauguraría al año siguiente, 1889.

**12 Febrero 1890** - El Director General de Obras Públicas firma la Real Orden por la que se aprueba el proyecto de Puente Bizkaia con vehículo movible.





**1890eko abuztuaren 4a** - Munduko lehen zubi transbordadorearen lanen hasiera. Alberto de Palaciorekin batera, Ferdinan Arnodin kolaboratzailea izan zen Bizkaia Zubiaren eraikuntzan.

**1893ko uztailaren 28a** - Inaugurazio ofiziala. Urtero ekintza kultural eta jaietako egitaraua antolatzen da monumentuaren inguruan horren urteurrena ospatzeko.

**1893ko abuztuaren 5a** - Isabel de Borbon infantak zazpi aldiz zeharkatu zuen Bizkaia Zubia ontzitxoan.

**1895** - Oholtza ireki zen jendearentzat; izan ere, jendea alde batetik bestera joan zitekeen zubia oinez zeharkatuta.

**1899** - Bidaiak 5 zentimo balio zuen pertsonako, ontzitxoaren erdiko partean; primerako tokitzat jotzen ziren alboetan, berriz, tarifa 10 zentimokoa zen pertsonako.





**1902ko iraila** - Espainiako Erregeak Bizkaira eginiko bisita zelaeta, zubiari izar bat jarri zitzaion oholtzaren gainean argiztatu zen lehen egunean apaingarri gisa; argindarraz hornitu zuten.

**1937ko ekainaren 17a** - Iparraldeko Armadaren ingeniarien batailoiak Nerbioi ibaia zeharkatzeko bide guztiak suntsitzeko agindua eman zuen, Francoren tropen aurrera egitea galarazteko. Eztanda handi batek heriotza ekarri zion Bizkaia Zubiari, eta bertako langeta itsasadarreko uretara erori zen.

**1939ko urtarrila** - J. Juan Aracili agindu zitzaion Bizkaia Zubia berreraikitzeko proiektua.

**1939ko abuztuaren 5a** - Bizkaiko Herri Lanen Burutzak, Portuko bulegoen barruan, Bizkaia Zubia berreraikitzeko proiektua onesten zuen agindua eman zuen.

**1941eko ekainaren 19a** - Bizkaia Zubiaren zerbitzu berriaren inaugurazioa.

**1946ko uztailaren 16a** - Zenbait zifra:

- Pertsona (30 zentimo)
- 20 bidaia (3,55 pzta.)
- Behi, mando edo zaldi bat (1,05 pzta.)
- Automobil bat (2,30 pzta.)
- Kamioneta (6,50 pzta.)
- Bizikleta (25 zentimo)
- Sidekardun motozikleta (1,05 pzta.)

**4 Agosto 1890** - Inicio de las obras del primer Puente Transbordador en el mundo. Junto con Alberto de Palacio colabora Ferdinan Arnodin en la construcción del Puente Bizkaia.

**28 Julio 1893** - Inauguración oficial. Actualmente se organiza un programa de actos culturales y festivos en torno al monumento para celebrar su aniversario.

**5 Agosto 1893** - S.A.R. la Infanta Dña. Isabel de Borbón cruza por la barquilla del Puente Bizkaia en siete ocasiones.

**1895** - El tablero estaba abierto al público, que podía desplazarse de una margen a otra cruzándolo a pie.

**1899** - El importe por el viaje era de 5 céntimos por persona en la parte central de la barquilla, en los laterales que se consideraba de primera la tarifa era de 10 céntimos por persona.

**Septiembre 1902** - Con motivo de la visita de SS.MM. los Reyes de España a Bizkaia, el Puente fue engalanado con una estrella en el centro del tablero, la primera vez que se iluminó, dotándolo de iluminación eléctrica a lo largo del mismo.

**17 Junio 1937** - El batallón de Ingenieros del Ejercito del Norte recibe orden de destruir todos los medios que permitiesen cruzar el Nervión, a fin de dificultar el avance de las tropas de Franco. Una gran explosión hiere de muerte al Puente Bizkaia, cuyo travesaño se precipita a las aguas de la ría.

**Enero 1939** - Se encarga a J. Juan Aracil el proyecto de reconstrucción del Puente Bizkaia.

**5 Agosto 1939** - La Jefatura de Obras Públicas de Vizcaya dentro del negociado de Puertos expide la Orden por la que se aprueba el proyecto de reconstrucción del Puente Bizkaia.

**19 Junio 1941** - Se inaugura de nuevo el servicio en el Puente Bizkaia.

**16 Julio 1946** - Algunas cifras:

- Persona (30 céntimos)
- Abono de 20 viajes (3,55 Ptas.)
- Una vaca, mulo o caballo (1,05 Ptas.)
- Un automóvil (2,30 Ptas.)
- Una camioneta (6,50 Ptas.)
- Bicicleta (25 céntimos)
- Motocicleta con sidecar (1,05 Ptas.)



**1964ko maiatzaren 22a** - Zerbitzua ofizialki inauguratu zen jarritako ontzitxo berri batekin, 15 metro luze eta 10 metro zabal zuena.

**1993ko uztailaren 28a** - Bizkaia Zubiaren ehungarren urteurrena.

**1998ko azaroaren 13a** - Bidaiarien ontzitxoaren eraikuntza eta inaugurazioa, 6 auto eta 280 pertsona eramateko edukiera duena. Ibilbidearen iraupena: minutu 1 eta 25 segundo.

**1999ko uztailaren 23a** - Itsasoratzeko areto berrien, igogailu panoramikoen eta oiezkoentzako pasagunearen inaugurazioa Espainiako Erregeen eskutik.

**Abenduan** - Monumentuaren argiztapen artistikoa.

**2006ko uztailaren 13a** - Bizkaia Zubia Gizadiaren Ondarea izendatu zuen UNESCOk.

**2011 -** Bere berreraketa garrantzitsuena egiten da. Metalezko egitura berritu egingo da eta “Vena Rojo Somorrostro” kolorezkoa margutuko da, erabiltzaileak eta adituak aukeratuta kolorea.

**2023ko uztailaren 28a -** Bizkaia Zubiaren ehun eta hogeita hamargarren urteurrena.

## Alberto de Palacio Elissague

Beti pentsatu izan da Alberto de Palacio gordexolatarra (Bizkaia) zela izatez eta 1856ko urtarrilaren 28an jaioa zela, Portugaleteko bere hilobian zizelkaturiko dataren arabera. Baina, egia esan, 1856ko urtarrilaren 24an jaio zen Sarako Benoiterie baserrian (Lapurdi).

Haurtzaroa Sara eta Palaciotarrek Sandamendin (Gordexola) zuten etxetzar barrokoaren artean eman zuen. Hala, hiru eleduna izan zen, txiki-txikitatik egin baitzuen euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Nerabezaro lasaia izan zuen, Bizkaian erortzen ziren bonba karlistetatik urruti, Carrión de los Condeseko (Palentzia) San Zoilo eta San Felix ikastetxeetako klaustroetan. Handik Bartzelonara joan zen goi mailako ikasketak egiteko Arkitektura Eskolan.

1882an kalifikazio bikainekin lizentziatu ondoren, Frantzian zehar ibili zen eta eraikuntzako berrikuntzarik garrantzitsuenak ezagutu zituen. Bidaia haren eta beste batzuen ondorioz, Frantziako arkitektura berriaren oinarri ziren kontzeptu teorikoak eta formalak ongien ezagutzen zituzten profesionaletako bat izan zen.

1883an Leonor Arana Iturribarriarekin ezkondu zen, eta Madrilera joan zen bizitzera karrera hasteko. 27 urte besterik ez zituela, orduan egiten ari ziren lanik handienetan kolaboratzeko aukera izan zuen: Retiroko Kristalezko Jauregia, Eguerdiko Geltoki Berria eta Espainiako Bankua (Madril). Haren lanaren etaparik ederrena izan zen.

Bizkaia Zubia 31 urte besterik ez zituela proiektatu zuen; izan ere, gaztaroko fase abangoardista horren amaiera bikaina izan zen. Bilboko Gran Viako bere etxean planeatu zuen berak “Zubi esekiaren eskeletoa” deitu zuena.

1939ko maiatzaren 11n, arkitekto jakintsu zaharra, gaixorik eta gerra zibilean asko sufriturikoa, hil egin zen Getxoko Arieta kaleko bere etxean.

Haren oroimenez, Areetako zubiaren ondoko plazan Ricardo Iñurria Alzubide eskultore santurtziarrak egindako busto bat dago, 1956an inauguratua.

**22 Mayo 1964** - Se inaugura oficialmente el servicio con una nueva barquilla instalada de 15 metros de longitud y 10 metros de anchura.

**28 Julio 1993** - Centenario del Puente Bizkaia.

**13 Noviembre 1998** - Construcción e inauguración de la nueva barquilla de pasajeros con capacidad para 6 coches y 280 personas. Duración del trayecto: 1 minuto 25 segundos.

**23 Julio 1999** - Inauguración de las nuevas salas de embarque, ascensores panorámicos y pasarela peatonal por SS.MM. los Reyes de España.

**En Diciembre** - Iluminación artística del Monumento.

**13 Julio 2006** - El Puente Bizkaia es declarado Patrimonio de la Humanidad por la UNESCO.

**2011** - Se acomete su remodelación más importante de las últimas décadas: la estructura metálica es remozada y pintada de color "Vena Rojo Somorrostro", elegido por los usuarios y por los expertos.

**28 Julio 2023** - 130 aniversario del Puente Bizkaia.

## Alberto de Palacio Elissague

Siempre se ha supuesto que Alberto de Palacio era natural de Gordexola (Bizkaia) y que había nacido el 28 de enero de 1856, según la fecha cincelada sobre su lápida en el cementerio de Portugalete. Sin embargo, lo cierto es que nació el día 24 de enero de 1856 en el caserío Benoiterie de Sara (Lapurdi).

Entre Sara y el caserón barroco que los Palacio poseían en Sandamendi (Gordexola) transcurrió su infancia, de manera que fue un vasco trilingüe ya que desde la cuna compartió el euskara con el castellano y el francés.

Pasó una adolescencia tranquila, alejado de las bombas carlistas que caían sobre Bizkaia, interno en los claustros del colegio San Zoilo y San Félix, en Carrión de los Condes (Palencia). Desde allí partió a Barcelona para completar sus estudios superiores en la Escuela de Arquitectura.

Licenciado con brillantes calificaciones en 1882, recorrió Francia y conoció en persona las más importantes novedades constructivas. Este y otros viajes le convertirían en uno de los profesionales mejor informados de los conceptos técnicos y formales que inspiraban la nueva arquitectura gala.

En 1883 se casó con Leonor Arana e Iturribarria y se trasladó a Madrid para iniciar su carrera. Con sólo 27 años tuvo ocasión de colaborar en las obras de mayor envergadura que se estaban realizando por entonces: el Palacio de Cristal del Retiro, la nueva Estación de Mediodía y el Banco de España (Madrid). Fue la etapa más brillante de su obra.

El Puente Bizkaia, proyectado con sólo 31 años, constituyó el broche de oro de esta fase de juventud vanguardista. En su casa de la Gran Vía bilbaína planeó lo que él mismo denominaba un "Puente Colgante en esqueleto".

El 11 de mayo de 1939 el anciano y sabio arquitecto, enfermo y maltratado por la Guerra Civil, falleció en su casa de la calle Arieta de Getxo.

En su memoria, en la plaza junto al puente en Las Arenas, hay un busto obra del escultor santurtziarra Ricardo Iñurria Alzubide que fue inaugurado en 1956.

## Bizkaia Zubia Bisitaldi Turistikoak:

**Oinezkoentzako pasabidea:**

9,50€ / 12€ (audiogida). Igoera igogailu panoramikoan oinezkoen pasabidera, 50 metroko altuerara; bertatik ikuspegiak izugarriak dira, Nerbioiren bokale osoa ikus daiteke eta.

Apiriletik urrira: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Azarotik martxora: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Bisita gidatua nahi baduzu, egin ezazu erreserba.

Kontsultatu taldeentzako prezio bereziak.

**Ontzitxoa:**

- Prezioa pertsonako: 0,50 €-tik gora.
- Prezioa ibilgailuko (zilindradaren arabera): 1,70€-tik gora.

2023ko prezioak, BEZ barne.

## Visitas turísticas Puente Bizkaia:

**Pasarela peatonal:**

9,50€ / 12€ (con audioguía). Subida en ascensor panorámico a la pasarela peatonal, situada a 50 metros de altura, desde la cual las vistas son extraordinarias, abarcan toda la desembocadura de la Ría.

De abril a octubre: 10:00-14:00 y 16:00-20:00.

De noviembre a marzo: 10:00-14:00 y 16:00-19:00.

Si desea visita guiada, realice la reserva.

Consultar precios especiales para grupos.

**Barquilla:**

- Desde 0,50€ / pax.
- Desde 1,70€ / coche (depende de la cilindrada).

Precios 2023, IVA incluido.

El Transbordador de Vizcaya, S.L.: **94 463 88 54** (Denda / Tienda)

## Beste iradokizun batzuk:

Gainera, aprobetxatu Bizkaia Zubirako bisita Areetan erosketak egiteko eta dastatzeko euskal gastronomia bertako taberna, jatetxe eta delicatesen-dendetan.




## Otras sugerencias:

Además aprovecha tu visita al Puente Bizkaia para salir de compras por Las Arenas y degustar la gastronomía vasca en sus bares, restaurantes y tiendas de delicatesen.

## Beste toki interesgarri batzuk
(ikusi atzeko mapa)

1. Mesedeetako Gure Amaren Eliza
2. "Getxoko etxe handien pasealekua". Udalerriko Jauregi arkitektura ezagutzeko aukera, Areeta eta Arriluzeko kaiako ibildidea seinaleztatuaren bidez.
3. Txurrukaren monumentua

## Otros puntos de interés
(ver mapa contraportada)

1. Iglesia de Nuestra Señora de Las Mercedes
2. "Paseo de las grandes villas de Getxo". Recorrido señalizado por el muelle de Las Arenas y el muelle de Arriluze conociendo la arquitectura palaciega del municipio.
3. Monumento a Churruca




## Informazio telefonoak

- Getxoko Turismo Bulegoa: **94 491 08 00**
- Turismo Informazioko Gunea (TIG) Bizkaia Zubiaren ondoan - **615 75 62 90** - Aste Santutik urtarrilaren 7ra.
- El Transbordador de Vizcaya, S.L. Denda: **94 463 88 54**

## Teléfonos de información

- Oficina de Turismo de Getxo: **94 491 08 00**
- Punto de Información Turística (PIT) junto al Puente Bizkaia - **615 75 62 90** - De Semana Santa al 7 de Enero.
- El Transbordador de Vizcaya, S.L. Tienda: **94 463 88 54**




**94 491 08 00 www.getxo.eus/info**

Getxo bizi ezazu ▸ Turismoa

BILBAO BIZKAIA be basque

EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

10006ED0523 BI-972/2012

Lagun gaitzazu ingurumena zaintzen eta baliabideen erabilera murrizten. Konparti ezazu liburuxka hau beste erabiltze batzuekin, kontsultatu ondoren.
Ayúdanos a conservar el medio ambiente y a minimizar el uso de recursos. Comparte este folleto con otros usuarios, una vez consultado.